


ERREPORTAJEA HAUR SAHARUIARRAK ELGOIBARKO FAMILIETAN • KULTURA 23. ZIGILU ERAKUSKETA  
KIROLA NAZIOARTEKO JUAN MUGERZA KROSAREN LABURPENA

# BARREN

ASTEKARIA



*Sahara eta Elgoibar  
elkarrengandik gertuago*

# GREBIOEN GIDA

## AROTEGIAK

### ARANZADI

Olaso 55 - CH  
"ā 943 74 34 78  
670 42 76 63

### BIENA

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
"zr 943 74 31 16

### GARCIA

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
943 74 32 38

### LODOSO

Leihoak  
Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.  
[lr](tel:943743490) 943 74 34 90

### LURRA

Santa Klara, 28 Behea  
`n\* 943 74 40 50

### SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
zr 943 74 36 34

### ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
"rr 943 74 05 47

### ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak  
Deba kalea, 16  
943 74 03 96

## ERREFORMAK eta PROIEKTUAK

### ETXEKIT

Antonio Arrillaga, z/g  
zr 943 74 43 47

## TURGINTZA

### ANGEL

Santa Ana, 5  
943 74 17 61  
'rr 689 04 92 06

### ONGI

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilda  
z' 943 74 28 80

### PAGOAGA

San Antolin, 13  
13 943 74 02 79

### TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO  
v• 943 75 50 62  
w 607 75 50 62

### ZALDUA

Urasandi, 26  
7† 943 74 05 30

### ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5  
943 74 07 89  
72 608 14 30 40

## PINTURAK:::

### BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 11 behea  
11. 943 74 15 52  
• 606 43 11 19-20

### IPINTZA

Foruen enparantza, 4  
17 943 74 04 40  
e\* 607 74 04 40

## PROIEKTUGILEAK

### JESUS M<sup>1</sup> GABILONDO

Ubitarte, 4-5 esk.  
670 41 20 73

## ELEKTRIZATEA

### ARAMAR

Morkaiko, 1  
z" 943 74 12 80

### AZPELETA

San Frantzisko, 51  
17 943 74 12 38

### JOSEBA

Pedro Muguruza, 29  
'Er 943 74 09 02  
z" 659 93 49 64

### URZELAI

Santa Ana, 12-14  
Ir 943 74 13 76

## IGELTSERITIA

### ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24  
zr 943 74 34 18

### ASKETA

Osio, 7 DEBA  
zr 629 34 43 89

### JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24  
943 74 29 87  
'n^ 679 19 77 47

## ISOLAMENDUAK

### GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak  
Olaso 27, 47. pabilioia  
943 74 30 94

# 40 URTE 40 ISTORIO

f<sup>1</sup>,

.11 ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELK ARFEA



## 2 Egoera beltza benetan!!

1950eko hamarkadan euskarak Elgoibarren bizi zuen egoera benetan beltza zen. Herriko kaleetan ez zen euskararik entzuten. Ume, gazte eta heldu guztiek gaztelaniaz jarduten zuten. Euskara etxeetan bakarrik entzuten zen, eta etxe askotan galdu ere egin zen eskolaren eraginez. Izan ere, herriko eskola guztietan gaztelaniaz bakarrik egiten zen, eta haur eta gaztetxoek gaztelaniaz ezagutzen zuten elkar. Egoera zelakoa zen ulertzeko, benetan esanguratsua da Bernabe Mujika zenak 1958an esandakoa. Honela zioen: "Nire gazte sasoiak Elgoibarko gazte gehienek euskaraz hitz egiten zuten, baina gaur (1958) Plaza Txikiko aulkipean perretxikuak aurkitzea errazagoa da bi ume euskaraz berbetan entzutea baino". Pentsa, gazteoi arraroa egingo bazaizue ere, umeen izenak ere ezin ziren euskaraz jarri!

Egoera honi aurre egin nahian edo, 1950ean hasi ziren Euskal Jaiak antolatzen Elgoibarren. Urtean bi edo hiru antolatzen ziren. 1956an, Gau-Eskola sortu zuen Pako Juaristik zenak. 80 herritar inguru hasi ziren euskara ikasten hilean 5 pezetako kuota ordainduz. 1960an, berriz, Elgoibarko estreinako kultur elkarte sortu zen: Ongarri Kultur Elkarte. Ongarriren helburua Elgoibarren kultura bultzatzea zen. Baina Ongarrin, euskaldunak egon arren, erdaldunak ere baziren eta jarduera gehienak erdaraz egiten ziren. Ondorioz, Ongarri euskararen hutsunea betetzen ez zuenez, 1963an Elgoibarko Izarra sortu zen. Kontatuko dizuegu datorren astean Elgoibarko Izarraren estreinako pausoak nolakoak izan ziren.

Felix Etxeberria eta Imanol Larrailaga

# iritzial



## To orain 40 urte

Abilezia nabanna dute espainiar inperioko agintariek, beraien azken mugimenduek agerian utzi duten moduan. Prestige petroliontzirekin eginiko,....., adjektiboa bilatzea ere kostatzen zait, estaltzeko, gure presoen kontra ekin dute berriro ere.

Ez zitzaien aski, atxiloketatik hasita egiten dituzten barrabaskeriak, behin espetxean daudenean pairatzen duten tratua, honi gehituz dispersioa, non senideak zigortzeaz gain (hainbat heriotz demokratikorekin), ez dituzte beraien helburuak lortu, euskal erresistentzi independentistarekin bukatzea.

Orain, espetxe zigorra 40 urtera luzatuko dute, honekin zerbait lortuko dutelakoan, eta egiazki esanda, noski lortuko dutela, sufrimendua luzaraztea hain zuzen ere. Sufrimendua alde guztietatik begiratuta, herri honek, hipotetikoki, amore eman dezake bere aske izatearen ametsarekin, baina bere herriko alaba edo semeren batek gatibu jarraitu ezker, borrokak era berean iraugo luke, aske izan arte iraugo duen moduan.

Bien bitartean beraiek, beraien torturazailak, hiltzaileak,.... kartzelatik nahi dutenean sar-irteteko aukera ematen diete, nahiz ta barruan ez egon batere txarto.

Gauzak neurtzeko bi neurri, aldizkari honek egiten duen moduan, batzuk nahiz eta elkarte baten izenean igorri eskutitzak, bere izen-deiturez (batzutan inizialez) gain espainiar kodebarra jartzen dutela, eta beste batzuk aske dutela (loreak botatzeko baldin bada) goitizenez sinatzeko (Ikus aurreko aleko bi eskutitzak).

Nestor Fuentes

Kexak .....	5
motz otZ .....	8
kuLtuRa .....	
kiRoLak .....	5
aGenda .....	20

## "MENDARO TELEBISTA" HALA "OLASO TELEBISTA" ?

Ez da denbora gehiegi Mendaroko telebista katea martxan jarri zenetik. Ez da erraza izango Mendaro bezelako herri txiki batean era honetako proiektu bat aurrera ateratzea. Baina ez dakit ba, zer bide hartu duen hasiera hasieratik proiektu honek.

Zenbait galdera luzatu nahi nituzke jendeak hausnartu dezan.

Duela aste batzuk Mendaro Telebistak Errealaren partiduak emititzen zituen domeketan. Berez ordaindu beharra zegoen partidu hauek ikusteko (satelite bidezko Pay Per View delakoa) eta Mendaro Telebistaren jokabidea guztiz legez kanpokoak zen. Errealaren partiduak dohainik ikusteko behar al genuen telebista Mendaron? Ez al da hau populismorik merkeena?

"Herriko semeak" delako atalean Anton Zubiaurre izan zen elkarrizketatua Mendaro Telebistan, aurreko astea batean. Alkate izandakoek lehentasuna daukate itxura denez saio honetan (guztiak PNVkoak). Kasualitatez Antonek Mendaro Telebista bere proiektu kuttunetakoa zela esan zuen elkarrizketan. Astean ordu gutxi batzutako emisioa dauka Mendaro Telebistak. Hala ere, ez dakit ezusteko handia izan den gaurkoa, etxera iristean Mendaro Telebistan Anton Zubiaurre, berriro ere kamaren aurrean Sprilur "bere" enpresaren handitasunak, edertasunak... kontatzen ikusi dudanean. Gaztelera hutsez.

Mendaro Telebista, gero eta argiago ikus dezakegunez, Olaso Telebista ere dei zitekeen. Hauteskundeak Maiatzean badira ere gizon honek jadanik kanpañari ekin dio eta berez herriarenak behar luketen medioak nabarmen posizionatzen hasiak dira (edo Olasok posizionatu ditu?). Mendarok gero eta biztanle gehiago dituela diote. Aurkituko ote dute Mendaro Telebistakoek elkarrizketatzea merezi duen eta Olaso ez den beste inor? Hala bedi guztion onerako.

E.E.A.

N.A.N. 15386270-Y

## TXOMIN ARANBERRI, MENDAROKO EUSKERAKO UDAL ZINEGOTZIARI...IPUIN LEHIAKETARI BURUZ

Azken egunotan Mendaron entzuten ari garen komentarioak ez dira batere atseginak izan eta horrela izaten jarraitzen dute orain ere. Ipuin lehiaketan idazlanak epaitzeko epaimahaia osatu zenuten partaideetako batzuren prestakuntza (adibide garbientetako bat zu zeu) ez da batere egokia. Nire ustez maila horretako idazlanak epaitzeko pertsona prestatuagoak egon beharko lirarteke (idazleak, euskarako maisuak...) Eta hori larria izanik, are larriagoa iruditzen zait zu epaileetako bat izanik, zure alabaren idazlana epaitzea. Non geratzen da impartzialtasuna? Kasualitate hutsa izan al da zure alaba txapelduna izatea? Honelako gauzak ikusita, zer erantzun espero duzu hurrengo urterako? Nolako garantia dute lehiakideek epaimahai justu bat edukiko dutela ziurtatzeko? Beste azpijoko baten aurrean ote gaude? Azalpen bat emateko aukera duzu Elgoibarko eta Mendaroko herritarrei.

E.E.A.

N.A.N. 15386270-Y

# Urruzunoren begi ezkutua Garraiolaria



Garraiolaria, garraio lanetan aritzen zen egunerokotasunaren zurrumbilano murgildurik. Paketeak garraiatzen zituen. Sarritan, gehienetan, internet bidez burututako erosketak izaten ziren eta jendeak ilusioz hartzen zituen bere beso gihartsuetan babesturiko paketeak. Bezeroek irribarre batekin ematen zioten ongi etorria. Garraiolariari atsegin zitzaien bere lana. Behin batean, bere izen berdineko gizon batentzako • pakete bat iritsi zen. Helbidea, oso ezaguna egin zitzaien. Bai kalea, portala, pisua... bapatean, bere etxea zela konturatu zen arte. Pakete hura berarentzako zen. Baina zer? Berak ez zuen ezer espero, ez zuen ezer erosten interneten.... Papela kendu, kaxa txikiaren tapa zabaldu eta barrura begiratu zuen, bihotzaren taupada bizkorren artean... Hutsik zegoen!! Eskua sartu eta bazter danak aztertu zituen bere behatzekin, nota txiki batekin eman zuen arte. Txartel txikiak zera zioen: "Aurkitu nauzu. Saria zurea da"

Eguzkiñe Aranberri

ASTEKARIA

# BaRRen

Nafarroa enparantza. 2

20870 ELGOIBARR

943 74 41 12

Publizitatea:

943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila:

[barren@topagunea.com](mailto:barren@topagunea.com)

Helbide informatikoa:

[www.topagunea.com/barren](http://www.topagunea.com/barren)

ARGITARATZILEA

Elgoibarko Izarra

LAGURTZILER Elgoibarko Udala KOOROMATZAILA Ainhoa Andonegi ZUZENDARIA Asier Orbea KAZETARIA frati Agirreazaldeggi, PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILA Jaione Unanue ADMINISTRAZIOA Amaia Rodriguez GEREITZIA Jon Peli Utiguena KOLABORRTZAILAK Jassone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburitik INRRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.100 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Efi!

ELGOISAIKO IZARRA  
1111.7111 [1.1.1.76.1

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlarazako Kultura Sailak  
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



stis kutxa

INDANOBAT  
MAWMASHERRAMEMTAGOITI  
GRUPO DANOBAT

IFITARTA

(13'1111111it

- Pilarreko ikasle batzuk, **ikastetxe aldamenean bizikletentzako aparkalekua falta dela** esan digute: "askotan bizikletan joaten gara ikastetxera, eta arazoak izaten ditugu bizikletak aparkatzeko. Ondo egongo litzateke bizikletak aparkatzeko lekua egitea, eta beharbada, jendeak kotxea gutxiago erabiliko luke".



- **San Frantzisko kalean, King Kong-etik gertu, errekarara jaisteko dagoen bidea oso arriskutsua dela** azaldu digu herritar batek: "bide horretan ez dago aterik, eta edonor jaitsi daiteke errekarara. Askotan umeak ere ibiltzen dira inguru horretan, eta oso arriskutsua da. Erreka hainbeste hazi zen egunetan, jende asko gerturatzzen zen begiratzera, eta egunen baten, ezustekoren bat gertatuko da. Arduradunek ez dezatela ordura arte itxoin zerbait egiteko".

- Ubitarteko emakume batek honako kexa ekarri digu: "Udalak **ura moztu behar duenean, eskertuko nieke aurrez abisatzea**. Izan ere, ordubete lehenago abisatuta (azkenekoan egin duten moduan) ez dugu ezer ere egiten. Beraz, ura moztu behar bada, moztu, baina bezperan abisatuta."

- Emakume batek esan digunez, **Basarte auzoan ez dute Gabonetako argirik jarri: "denok** gara herritarrak, eta denoi gustatzen zaigu Gabon kutsua nabaritzea. Gure auzoan ez dute Gabonetako argirik jarri, eta ez zaigu ondo iruditu. Ingurune honetan gero eta jende gehiago bizi da, beraz, datorren urtean kontu gehiago eduki dezatela eskatzen dugu". Honekin batera, kaleko argietan ere, bonbila asko ez direla pizten azaldu digute.



# SAHARAIIIAR

*Miguel Fernandez eta Conchi Diaz senar-emazteak "abegi-gurasoak" dira. Baina zer da hori? Udako hilabeteetan, Hirugarren Munduko haurrak etxean hartzen dituzten gurasoak dira. Duela bi urte jaso zuten lehenengo aldiz Sahara desertuko ume bat etxean. Bi hilabetez, bat gehiago izan ziren familian, eta esperientzia izugarria izan zenez, hurrengo udan, beste ume bat ekartzea erabaki zuten. Oraingoan, beraiek izan dira desertura bidaia egin dutenak. Lau*

*egun pasatu dituzte Saharan, eta esan digutez, esperientzia ahaztezina izan da. Elgoibarraren izandako bi umeen familiak ezagutu dituzte, eta bizitzeko modu desberdinak daudela ikasi dute. Bikote honek, elgoibartarrak animatu nahi ditu umeak etxean jasotzera; izan ere, ume hauek behar handia baitaukate. Bide batez, Saharara eramateko sendagaiak, jantziak eta janaria eman zieten guztiak eskertu nahi dituzte.*

## BIDAIA AHAZTEZINA

**K**onstituzioko zubian joan ziren Afrika aldera Miguel eta Conchi. Argeliako Wilaya-Auserd eta El Ayun kanpalekuak bisitatu dituzte, Saharako desertuan. Aspalditik zeukaten bidaia hau egiteko gogoia, baina ekonomikoki gastu handia suposatzen duenez, ezin izan dute lehenago egin. Miguelek azaldu digunez, hasiera batean bere emaztea bakarrik zihoan, baina azkenean biak joatea erabaki zuten: "Konstituzioko zubian Estatu mailan antolatzen dira bidaia hauek, eta hasieran ez geneukan bidaiatzeko txartelik. Azkenean lortu genituen, eta oso pozik abiatu ginen Sahara aldera".

Bidaia luzea eta gogorra izan zen bertara iritsi arte, baina zalantzarik gabe, merezi izan duela azaldu digute: "oso gutxi daukate, egoera oso kaskarrean bizi

dira, eta dena emateko daukate". Bertara iritsi zirenean, beraien kanpalekuko arropak jantzi, eta gorputzeko hainbat zati margotu zizkieten. Honekin batera, ongi-etorria emateko ahuntza hil zieten: "beraien ohitura bat da, eta egon ginen bi

**"Saharaiarrek ez daukate ezer, eta dena ematen dute".**

**Miguel Fernandezi**

kanpalekuetan gauza bera egin ziguten". Ogia egiteko modu oso bitxia daukatela azaldu digu Miguelek: "lehenengo sua egiten dute desertuko landare batzuen sustraiarekin. Gero masa hondar azpian sartzen dute labea izango balitz moduan,

eta harrigarria dirudien arren, sekulako ogi goxoa egiten dute".

Miguelek esan digunez, desertuko bizimoduak erabat harritu ditu: "sinesteko ikusi egin behar da. Oso egoera prekarioan bizi dira, ez daukate urik, eta oso gutxi garbitzen dira, Dutxa on bat eta jartzeko aulkitxo bat bota ditut faltan". Zapatarik gabe ibiltzen dira, eta oinetan sekulako zauriak izaten dituzte: "sendagaiak eraman dizkiegu, baina ez dituzte erabiltzen, azukrearekin sendatzen dituzte zauriak. Gogorra egiten da haurrak horrelako zauriekin ikustea". Oso euri gutxi egiten du, eta udan bero handia jasan behar izaten dute. "Bizitza kalitatea oso baxua da".

Kanpalekuetako bizilagunak lurtean bizi dira, hau da, mahai txiki batzuk dituzte bazkaltzeko, baina beraiek lurtean eseritzen dira, eta lo ere, lurtean egiten dute. Duela gutxira arte argirik ere, ez zeukaten. Azkenaldian eguzki-plakak erabiltzen hasi direla azaldu digu Miguelek. "Oso gutxiarekin bizi dira". Toki guztietan bezala, desberdintasunak daude, eta klaseak bereizten dira. Batzuk kultura maila handiagoa daukate, eta lan egiteko aukera gehiago, baina hala ere, lana egiten duenak, ez du dirurik kobratzen: "hemen baino askoz lan gutxiago egiten da, baina oso jende gutxi kobratzen du. Bizimodu gogorra daukate".



# BAT FAMILIAN

## NOHANME ETA DADIK

**M**iguel eta Conchik aspalditik sentitzen zuten Hirugarren Munduari laguntzeko beharra, eta ahal zuten moduan, betidanik lagundu izan dute. Beraien semeak nagusitu ahala, zerbait gehiago egin behar zutela erabaki zuten. Horrela, Miguel, Conchi, Joseba eta Unai mahai-inguruan bildu, eta Sahara desertuko haur bat etxean hartzea erabaki zuten.

2001. urteko udan Mohammed etorri zen Elgoibarrera. 7 urte zituen, eta Miguelek azaldu digun moduan, motxila txiki bat besterik ez zekarren berarekin: "haur hauek ez daukate ezer, dena eman behar zaie". Bi hilabetez, bat gehiago izan ziren familian. Inolako desberdintasunik egin gabe, beraien semea izango balitz bezala tratatu zuten Miguelek eta Conchik: "ahal genuen guztia eman genion, janaria, jantziak, eta batez ere, maitasuna".

Esperientzia izugarria izan zen, eta hurrengo udan berriz haur bera ekartzea nahi zuten, baina Mohammed ez zuen kurtsoa gainditu, eta ezin izan zuen etorri. Miguelek azaldu digunez, desertutik atera ahal izateko, ezinbestekoa da kurtsoa gainditzea. Hala ere, ez zuten atzera egin, eta beste mutiko bat etorri



zen Elgoibarrera iaizko udan. Daih zeukan izena, eta 14 urte zituen. Esperientzia desberdinak izan zirela azaldu digute: "DadU" nagusiagoa zen, eta harremana zailagoa zen".

Haurrak oso pozik etortzen omen dira. Hala ere, haur hauek beren familiari oso lotuak bizi dira, eta batzutan egokitze prozesua gogorra egiten zaie. Hemengo gauza guztiak berriak dira beraientzat: "Iritsi eta berehala, hozkailua ireki eta harrapatzen duten guztia jaten dute. Hainbeste ur ikusteak ere izugarri

**"Haur Saharaiarrak etxean hartzea izugarriko esperientzia da"**

**Miguel Fernandez**

harritzen ditu, argi-ındarrak ere bai, eta egun guztia komuneko kateari tiraka pasatzen dute".

Aurtengo udan, berriz ere Mohammed Elgoibarrera ekartzen saiatuko dira. Bere familiaren nahia haurra Euskal Herrian gelditzea da, bere

ikasketak hemen burutu ditzan. Hala ere, oso zaila dela azaldu digu Miguelek: "Gure esku dagoen guztia egingo dugu, baina baimen guztiak lortzea oso zaila izango da". Miguelek eta Conchik esan digutenez, ahal duten heinean. Saharako haurrak Elgoibarrera ekartzen jarraituko dute.

## ZER EGIN BEHAR DA SAHARAKO HAUR BAT ETXEAN HARTZEKO?

Lehenengo pausoa, Udaletxeko zerbitzu sozialen departamentura jotzea da. Bertan informazioa eskatu, eta haur bat etxean hartzeko gogoia edukitzea nahikoa da. Miguelek esperientzia aberasgarria dela adierazi digu, eta haurrek izugarri eskertzen dutela gaineratu du. Iazko udan hiru haur saharai egon ziren Elgoibarren, eta Miguelek jende gehiago animatu nahi du: "ez da ezer kostatzen, eta beraiek benetako beharra daukate. Probatzen duenak errepikatu egiten du".



## Soraluze eta Maltzaga arteko zuhitik zintzilik geratu zen zatiak arazo larriak sortu ditu errepidean

Elgoibartar askok Elgetako mendatea erabili du egunotan

**J**oan zen urtarrilaren 8an, Maltzaga eta Soraluze arteko zubia puskatu egin zen, eta buruhauste handiak sortu ditu errepidean. Elgoibartar ugarik erabiltzen du GI-627 errepidea egunero, eta azken egunotan, Elgetatik bueltan joan beharra izan dute. Eguraldiak ere ez du gehiegi lagundu, eta elurra dela eta, arazoa larriagoa izan da. Modu berean, jende asko etortzen da Deba Goienatik Elgoibarrera lanera, eta arazo bera izan dute. Errepide gainean erortzeko arriskuan zegoen zubi puska sendotzeko kable berriak jarri dituzte, baina oraindik, zintzilik geratu ziren hiru piezak garabiari lotzea gelditzen da. Foru Aldundiak hiruzpalau egunen buruan arazoa konponduta egongo dela jakinarazi du.



*Eibar-Gasteiz autopistan, Maltzaga eta Soraluze artean eraikitzen ari diren zubian izan ziren arazoak.*

## Elgoibartar ugari elkartu zen Morkaikon Urte Berri egunean



Tradizioari jarraituz, herritar ugarik mendira joanez hasi zuten urte berria. Goizean goiz jaiki, ondo gosalduta eta Morkaiko mendira abiatu ziren 2003. urtea ondo hasteko asmoz. Argi dago urtea hasteko modu desberdinak daudela. Asko ajea pasatu ezinda egongo ziren ordu horretan, baina oraindik ere, badira urtea mendi buelta batekin hasten dutenak. Elgoibartik denak batera abiatu ez ziren arren, talde polita elkartu zen gailurrean. Morkaiko mendizale elkarteak urtero jartzen duen jaiotza bisitatu, eta argazkia atera zuten.

## Apirilean hasiko dituzte Apraizko depuradora eraikitzeko lanak

Aurrez esan genizuen Deba ibaiaren Gipuzkoako ibairik kutsatuena zela. Honetaz gain, garbiketa lanak errazteko baliabide gutxien dituen ere bada. Baina datozen bi urte hauetan bailaran hiru depuradora irekitzeko asmoa du Foru Aldundiak: Elgoibarren, Bergaran eta Arrasaten. Elgoibarko depuradoraren proiektua Apraizen eraikiko dute, eta inguruko industrialdeetako enpresariak kezu azaldu badira ere, lurra egokitzeko lanak hasita daude dagoeneko. Depuradora egiten apirilean hasiko dira eta urtebeteko epean amaitu beharko dute.





## Merkatu Plazako dendariak 80 euroko 4 sari banatu dituzte

Hilabete honetan 60 euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Pilar Herrero, Iñaki Arizmendi, Yolanda Iglesias eta Asier izeneko mutil bat izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jaso dute, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute. Datorren hilabetean, Lekeitioko bainuetxean bi pertsonentzako asteburua zozketatuko da.



## Irati Agirreazaldegik Barren utzi du



Hiru urte pasa gure artean egon ostean, Irati Agirreazaldegik Barren aldizkaria utzi egin du. Kazetari lan garrantzitsua egin du Barrenen, eta dudarik gabe, igarriko dugu bere falta. Barreneko lantaldeak zorterik onena opa dio bere bizimodu berrian.

## Miski Elkartasun Taldearen zozketa urtarrilaren 21ean

Miski Elkartasun Taldeak urtarrilaren 21ean, martitzenean, egingo du Gemma Monreal margolari elgoibartarraren koadroaren zozketa. Egurdiko 13:00etan izango da zozketa Kultur Etxeko erakusketa gelan. Bestalde, Gemma Agirregomezkortak esan digunez 1.500 euro bildu dituzte herriko taberna eta komertzioetan Perurako dirua biltzeko jarrita zeuden itxulapikoetatik.

## "Irrikitan" ETBko saiora ikusle moduan

ETBtik adierazi digutenez, elgoibartarrek "Irrikitan" telebista saiora publiko moduan joateko aukera izango dute. Euskal aktore ezagunek egindako umorezko monologoak dira saio honen ardatza. Hurrengo saioa otsailaren 5ean, eguaztenean, grabatuko da Miramon estudioetan. Ikusle moduan joan nahi dutenek 646 07 40 54 (Gaizka) telefonora deitu beharko dute. ETBk jarritako autobusean joateko aukera izango da Elgoibartik.



*ffatuct Vertend de fe jurog*

Jausoro plaza, 1 behea  
Tel: 943 74 26 99  
Faxa: 943 74 12 35  
E-posta: mgsluisa@euskalnetnet

ELGOIBARKO DELEGAZIOAK URTERO  
BEZEROEN ARTEAN ZOZKETATZEN DUEN TELEBISTA,

ELIAS LARRAÑAG, R *ri* EGOKITU ZA10

DELEGATIM: M. Luisa Urain Arakistain

# ZORIONAK!



## Urtebete pasa da Euroa zirkulazioan sartu zenetik

# PESETATIK EURORA ALDAKETA ONERAKO ALA NARRERAKO IZAN DA?



**MANU REY**  
36 urte, ostalaria

Ez dut aldaketa handiegirik igarri, denbora gehiago behar da onerako ala txarrerako izan den esateko. Batzuk prezioak igo dituzte, baina leku batzutan mantendu egin dira. Nik peseta ahaztu eta eurotan kalkulaten dut.

**NEMESIA ANGULO**  
58 urte, etxeoandrea

Erosleentzat txarrerako izan da aldaketa, borobiltzerakoan prezioak igo egin direlako. Dirua errazago gastatzen da. Nik pesetetan daukat burua oraindik, eta denbora asko beharko dut eurora ohitzeko.



**IÑAKI ANSOLA**  
46 urte, irakaslea

Gauzak ez dira asko aldatu. Gehiago ordaintzen dugu, baina ez dakit euroarengatik izan den edo ez. Ahal dudan gehiena eurotan kalkulaten saiatzen naiz. Prezioak eurotan ikasi, eta eskatzen didatena ordaintzen dut.

**MARI PAZ MARTINEL**  
30 urte, etxeoandrea

Txarrerako. Prezioak igo dira, eta poltsikoan izugarri igarri dut. Erosi ostean, zenbat gastatu dudana kalkulaten dut eta askoz garestiago ateratzen zait kontua. Ez gara konturatzen zenbat gastatzen dugun.



**HANNANE SBITA**  
27 urte, etxeoandrea

Txarrerako. Borobiltzerakoan dena garestitu da. Oraindik ez naiz txanpon berrira ohitu, eta pesetetan pentsatzen jarraitzen dut. Erosketak egiterakoan beti pesetetan dagoen salneurriari egiten diot kasu.

**LUIS ANJEL IRUARRIZAGA**  
35 urte, programatzailea

Dena garestiago dagoela igarri dut. Gainera, oraindik pesetetan kalkulaten dut, eta ez naiz eurora ohitu. Hala ere, atzerrira joateko abantaila bat izan da, orain ez baita txanpon aldaketarik egin behar.



**Neguko menu bereziak**  
12 euro

Ora'n igande  
gwtart ere zabalikA

Basarte Auwa, 4  
Telf - Fa.r 943 743 426  
20870 Eloibar



**Visfiut -1**  
**JATETXEA**



**te440.1/44 C.,.,.**

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**

# no<sup>1</sup> ALDATU diren gauzak!



**1963.** urte inguruko argazki hau, Elgoibarko Udal liburutegian laga digute. Begira nolako zen garai hartan gure herria! San Frantzisko kalea, Madalako auzoa eta bere ingurunea zeharo desberdin azaltzen zaizkigu argazki honetan. Urte asko pasatu dira, eta gauzak asko aldatu dira. Argazki honetan ikusten den bezala, herri inguruan mendia zen nagusi. Lur sail ederrek inguratzen zuten Elgoibar. Gure herria betidanik izan da industrigune garrantzitsua, eta argazki honetan ere, ageri zaizkigu garai hartako hainbat lantegi. Orduan ere, baserritarrak sarritan jaisten ziren kalera beraien produktuak saltzera. Ezbairik gabe, garai desberdinak ziren.

**2003.** urteko argazkia erabat desberdina da. Begira nolako edertasuna daukan gaur egun gure herriak. Asko handitu da Elgoibar. Urteak pasatu ahala, lantegi, etxebizitza eta ikastetxeak gehitu egin dira. Urasandi auzoa ere berria da, bere eskola eta etxebizitza ugariekin. Gaur egungo erretratuan, King-Kongeko zubia ere ikus dezakegu. Zubi garrantzitsuak ditu Elgoibarrek ibai gainean, eta jende asko pasatzen da bertatik. Industria ere, asko hazi da, eta Albitxuriko lur sailak jende ugariaren lantoki bilakatu dira. Honekin batera, Ikastola, San Roke auzoa eta beste hainbat gauza berri ageri zaizkigu argazkian. Urteak ez dira alferrik pasatzen!

Juanito Gorostiza



**TABERNA TRASPASATZEN DA ELGOIBARREI,  
Informazioa: 943 74 87 58**

a



# Praktikak atzerrian

*Joseba Elustondo eta Aitor Epelde tigoibartarrak Txandakako Ingenirutzak ikasten ari dira IMHn. Hiru urtetako ikasketa hauetan egun erdiz ikasi eta egun erdiz lan egiten dute eta azkenengo urtean 8 astetik 12 astera bitartean atzerrian pasa behar izaten dituzte praktikak egiten. Joseba*

*Danobaten ari da egun erdiz lanean eta Estatu Batuetako Chicagoko hirian izan zen iazko irailtik azarora bitartean. Aitorrek, berriz, Kondian egiten du lan eta Suitzako Reiden herrixkan izan da, Zurich eta Luzerna bitartean. Bertan ikusi eta ikasi dutena azaltzeko eskatu diegu.*



**Aitor Epelde**

"Suitzarrek legeak errespetatzeko duten moduak harritu nau"

**Lein da atzerriko praktika hauen helburua?**

Herrialdea eta kultura ezagutzeko beste modu eta giro batzuk ezagutzeko. Lan egiten ari garen enpresak ez baldin badu delegaziorik edo harremanik atzerriko enprekin, ikasleok topatu behar izaten dugu praktikak non egin. Azken kasuan IMH berak topatzen digu enpresa.

**Non izan zara?** 800 biztanleko Reiden herrian, Reiden Tecnike enpresan lanean. Kondiako makinak saltzen ditu Suitzara eta harreman hori izan da aprobetxatu duguna. Ofizina teknikoan aritu naiz hini dimentsiotako softwareekin lan eginez.

**Lan egiteko duten modua eta he. -rdin al dira?** Nire arloan, ofizina teknikoan, askoz hobeto daude han. Bai ekipamendu aldetik; ordenagailuak, mahaiak... eta baita lan filosofiarik dagokionez ere. Ordutegi aldetik flexibilitate handia dute. Goizeko 6:00etatik gaueko 21:00ak bitartean 8 ordu sartu behar dituzte.


**Nolako izakera dute Suitzarrak?** Oso itxiak dira hasieran, baina behin ezagutzen dituzenean oso irekiak dira. Arauak eta legeak fin-fin errespetatzen dituzte. Lanean ere berdin, arau berri bat ateratzen bada, hilabete baino lehen funtzionamenduan dago.

**Zer da Suitzatik gehien harritu zaituena?** Daukaten talde izaera. Adibidez, eskola berri bat egiteko zerga bat 30 eurotan igotzea erabakitzen badute, denek ematen dute dirua. Suitzar erloju bat moduan funtzionatzen du denak. Hala ere, hemen daukagun bapatekotasuna botatzen nuen faltan. Han, bidea eginda badago bidetik joaten dira.

**Suitzara ezagutzen al dute Euskal Herria?** Bi pertsonak bakarrik ezagutzen zuten, baina oso irudi ona zeukaten. Bilboko Makina Erremintaren feria eta euskal gastronomia ezagutzen zituzten. Espainiarrei buruz, berriz, irudi txan'agoa dute. Moteltzat eta ezjakintzat daukate. Latino guztiari buruz duten iritzia da, ordea.

**Joseba Elustondo**

"Chicagoko moduko hiriak horren ongi funtzionatzea sineztesina da"



**Nolako hiri da Chicagoko?** Oso hiri aberatsa da. Duela 140 urte inguru sute batek hiri guztia txikitu zuen. Berriz dena berreraikitzen hasi ziren eta urte hauetan izan duen hazkundera izugarria izan da. Gaur egun etxeroz beteriko 8 milioi biztanleko hiri erraldoia da.

**Non ibili zara lanean?** Danobatek duen delegazioan ibili nintzen lanean komertzial arloan. Suerte handia izan nuen Andoni Mujika elgoibartarra ere Chicagoko baitzegoen musika ikasketak egiten eta bere etxean egon nintzen.

**Nolakoak dira amerikarrak. Zerk deitu dizu errentzia?** Batez ere, dagoen kultura aniztasunak. Leku eta kultura guztietako jendea aurkitu daiteke Chicagoko. Bestalde, lanerako eta bizitzarako duten fiak arritu nau. Lehenengo inpresiva da beti daudela laguntzeko prest, baina beraien konfidantzak muga bat dauka eta oso zaila da konfidantza hori lortzea. Auzokoekin dituzten erlazioetan nabari da. Askok ez dakite zein den bere auzokidea eta ezta jakin nahi ere. Lana bukatutakuan ere bakoitza bere etxera, ez trago bat ez afari bat. Desberdina da.

**Zengatik detizen dioten Chicagoko uhatzearen hiri?** Batetik oso hiri hotza eta haizetsua delako, Michigan lakutik sartzen baida haizia. Beste zentzu bat ere badauka, ordea, politikari lotua. Politikoki oso giro nahasia bizi izan duen hiri izan baita historikoki. Alkate asko pasa dira udaletxetik, haizeak nondik jotzen duen arabera dirudienek.

**Zer daukagu amerikarretatik ikasteko?** Horren hiri erraldoiak, dagoen kaosarekin, horren ondo funtzionatzeak harritu ninduen.

**Eta guk zerbait erakutsi al diezaiekegu?** Bai gauza asko. Bat adibidez jaten. Lanian egon naizen tokian ez zuten bazkaltzen, fruta edo b diloa eramaten zuen bakoitzak eta prisaka jan gainera.



### SASUNA

## Farmazia - okindegia

EGUNEZ		GAUEZ	
17	Fernandez	Fernandez	
18	Zabaleta Bidasolo*	Zabaleta	
19	Zabaleta Bidasolo*	Zabaleta	
20	Etxeberria (Errosario kolean)	Etxeberria	
21	Ibañez	Ibañez	
22	Bidasolo	Bidasolo	
23	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria	
24	Fernandez	Fernandez	

**FARMAZIAK**  
**ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze.  
 Tel: 943 75 16 38  
**FERNANDEZ**,  
 Herriko enparantza 4, Garagarza.  
 Tel: 943 75 61 42  
**ZABALETA**, Kalebarren, 9 Soraluze.  
 Tel: 943 75 13 84  
 \*eguerdiko 2ak arte

**OKINDEGIA**  
**17 osfira** Idarraga  
**19 iganda** Doña Mercedes

Anbulatorioa .....	03 26 10
Planning-a .....	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak.....	943 74 03 85
D YA (anbulantzia) .....	943 46 46 22
Gurutze Gorria .....	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea .....	943 03 28 00
Odol Emaileak .....	943 74 39 36

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....	902 54 32 10
PESA (Eibar) .....	902 10 12 10
Taxi geltokia .....	943 74 08 98

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua.....	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua .....	943 74 21 58
Mendaroko Udala .....	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua .....	943 74 10 08
Udaletxea .....	943 74 10 50
Udaltzaingoa .....	943 74 13 94

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra .....	943 74 16 26
Kiroldegm .....	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa .....	943 74 30 88
Liburutegia .....	943 74 35 25
Musika Eskola .....	943 74 21 45
Mintxeta .....	943 74 43 15
Parrokia .....	943 74 08 42
Postetxea .....	943 74 15 47
Gaztetxea .....	943 74 35 72
Gazte Informazice .....	943 74 14 61

### ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza .....	943 74 02 96
Zaharren Biltokia .....	943 74 05 26
Eguneko Zentroa .....	943 74 45 65

### IKASTETXEA

Haur Eskola.....	943 74 21 41
HHI (EPA) .....	943 74 08 80
Herri Eskola .....	943 74 08 79
I.M.H.....	943 74 41 32
Instrutua	
Arreiturre .....	943 74 80 19
Ezenarro (Meka) .....	943 74 80 19
Ikastola .....	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea.....	943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN .....	943 74 41 12
El Diario Vasco .....	943 74 40 73
El Correo Español .....	943 74 10 82
Zazpiki irratia .....	943 74 34 74
Egunkaria .....	943 30 02 22
Gara .....	943 31 69 99

## Eusko

**DONOSTIA-BILBO**  
 Egunero  
 Donostia MARA 5.45 06.45... 20.45  
 Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02  
 \* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

**BILBO-DONOSTIA**  
 Egunero  
 Bilbo 06:00 7.00... 20.00  
 Elgoibar 07.23 08.23... 21.23  
 jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

## Eusko i ren

m.IOBUS.ils

**MENDARO-ELGOIBAR**  
 Egunero  
 Mendaro 07.50 08.50. 21.50

**ELGOIBAR-MENDARO**  
 Astegunetan  
 Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

**Jaiegunetan**  
 Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

## PESO

AUTOBUSAK

### LARUNBAT GAUA

**EIBAR-ONDARROA**

Eibar	00.30	02.30	04.30	06.30
Elgoibar	00.40	02.40	04.40	06.40
Deba	00.50	02.50	04.50	06.60
Mutriku	00.55	02.55	04.55	06.55
Ondarroa	01.05	03.05	05.05	07.05

**ONDARROA-EIBAR**

Onciarroa	23.30	01.30	03.30	05.30
Mutriku	23.40	01.40	03.40	05.40
Deba	23.45	01.45	03.45	05.45
Elgoibar	23.55	01.55	03.55	05.55
Eibar	00.05	02.05	04.05	06.05

**EIBAR-MUTRIKU**

Eibar	01.00	02.30	04.30	06.00
Elgoibar	01.10	02.40	04.40	06.10
Deba	01.20	02.50	04.50	06.20
Mutriku	01.25	02.55	04.55	06.25

**MUTRIKU-EIBAR**

Mutriku	00.00	01.30	03.30	05.30
Deba	00.05	01.35	03.35	05.35
Elgoibar	00.15	01.45	03.45	05.45
Eibar	00.25	01.55	03.55	05.55

**EIBAR-AZPEITIA**

Eibar	01.30	03.30	05.30
Elgoibar	01.40	03.40	05.40
Azkoitia	01.50	03.50	05.50
Azpeitia	01.55	03.55	05.55

**AZPEITIA-EIBAR**

Azpeitia	00.30	02.30	04.30
Azkoitia	00.35	02.35	04.35
Elgoihar	00.45	02.45	04.45
Eibar	00.55	02.55	04.55

Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. TeL 902 101 210.

## XXIII. Zigilu Erakusketa zapatu honetan inauguratuko da

Aurtengo edizioan Taupada Antzerki Taldearen 25. urteurrena gogoratuko da

**X**XIII. Zigilu Erakusketa urtarrilaren 17tik 26ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxeko erakusketan gelan. Inaugurazio ofiziala, larunbatean, urtarrilaren 18an izango da, eguerdiko 12:00etan. Inaugurazioaren ostean, eguerdiko 14:30ean, "Baltasar" pilotazale elkarte anaiarteko bazkaria izango dute Herriko Filatelia Elkartekok, eta Euskal Filatelia Federazioko hainbat partaidek. Erakusketan mota guztietako bildumak ikusi ahal izango dira. 90 zigilu bilduma desberdin erakutsiko dira guztira. Bildumagile bakoitzak bere bilduma ekarriko du, eta besteak beste, musika, mendia, arte erromanikoa eta hasierako hegaldietako zigilu bildumak egongo dira



Argazkian bisitari batzuk jan zen urteko edizioan.

ikusgai. Bisita orduak: astelehenetik ostiralerara 19:00etatik 21:00etara, eta larunbat eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara, eta 18:00etatik 21:00etara.

Aurtengo edizioan, Taupada antzerki taldea izango da protagonista. Taupadak 25 urte bete zituen joan zen urteko azaroran, eta aurtengo zigilu erakusketa berari dedikatuko zaio. XXIII. edizio honetako zigilu nagusian, Taupada antzerki taldearen anagrama eta Euskal Antzerki Taldearen adierazgarri diren bi maskara ageri dira 25 urtetan egin duten lana saritu asmoz. Honetaz gain, Posta eta Telekomunikazioen Zuzendaritzak lagata, urtarrilaren 18 eta 19an zigilu berezi bat egongo da erabili nahi duenarentzat.

## Etxegiña taldea otsailaren 1 ean aterako da Santa Eskean



**O**hiturari jarraituz, Santa Eskeko Etxegiña Taldea, otsailaren lehen, larunbatean, aterako da Elgoibarko kale eta auzoetan zehar koplak kantatzera. Goizeko 9:00etan aterako dira Bolatokitik, (San Bartolome elizaren alboan dagoen parketik) eta Elgoibarko kale eta auzoak igaro ostean, Errosario kaleko Ama Birjinari salbea abestuko diote. Eguerdi aldean, Baltasar Pilotazale Elkartearen urtero egiten den

bazkariarekin amaituko dute eguna.

Urtero bezala, Santa Eskea baino lehen, bi entsaio egingo dituztela jakinarazi nahi dute: Urtarrilak 28 (asteartea) eta urtarrilak 30 (osteguna) izango dira entsaio egunak, iluntzeko 8etan Kultur Etxeko Sotoan. Bide batez, entsaioetan edota, otsailaren leko ekitaldian parte hartzeko jendea animatu nahi dute, eta herritar guztiei luzatzen diete gonbidapena.

### ESKERTZA

2003ko urtarrilaren 5ean, 78 urte zituela hil zen JOSEFA LIZUNDIA CALZACORTAren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Kenenisa Bekele munduko kros txapeldunak irabazi zuen Mugerza Krosa

### Mintxeta Atletismo taldeak Mamo Wolde, Fermin Arrese, Jose Gurrutxaga eta Fernando Uriarte omendu zituen



Kenenisa Bekele 20 urteko atleta etiopiarra gaur egun kros munduan **K**errikeriorik ez duela erakutsi zuen Mugerza krosean eta baita zergatik den Munduko kros txapelduna frogatu ere. Bekelek 30:58 denbora behar izan zuen Mintxetako zirkuitoak guztira zituen 10.130 metroak korrika egiteko. Hirugarren kilometroan egin zuen alde taldeak eta helmugan 11 segundu atera zizkion bigarren sailkatuari, Albert Chepkurui keniarrari. Hirugarren postuan Chema Martinez harrigarri bat sailkatu zen. Madrildarrak bere bizitzako lasterketa egin zuen eta Alemu etiopiarra edo Yuda tanzaniarra moduko atleten aurretik sailkatzea lortu zuen. Aipagarria da Oscar Malvar elgoibartarrak egin zuen lasterketa. 35. postuan amaitu zuen 35:42 denborarekin. Oscarrek Bekele txapeldunari zirkuitoa erakusteko ohorea izan zuen lasterketa aurreko egunetan. Bestalde, Mintxeta Atletismo Taldeak nesken eta mutilen alebin mailan taldekako sailkapenak irabazi zituen eta Angel Mari Lopez elgoibartarrak irabazi zuen alebin mailako lasterketa. Guztira 350 korrikalarik hartu zuten parte kategorian desberdinetan.

#### Edith Masai nagusi emakumezkoetan

Emakumezkoen lasterketak ere protagonista nagusi bakarra izan zuen, Edith Masai keniarra, alegia. Iazko Munduko Kros laburreko txapeldunak erraztasun osoz irabazi

zuen lasterketa. Prisca Jepleting keniarra sailkatu zen bigarren postuan, irabazlearengandik 32 segundutara.

#### Omenaldiak

Garaipenarekin aurtengo hil berri den Mamo Wolde herrikidea eta korrikalari mitikoa omendu ahal izan zuen Bekelek. Hain zuzen bera izan zen zapatuan Udaletxeko pleno aretoan korrikalariei egin zitzaizkien harreraren Wolderen omenez Mintxetako jarriko den irudia bistaratzeko ohorea izan zuena. Ez zen omenaldi bakarra izan, Mintxeta Atletismo Taldeak Fermin Arrese, Jose Gurrutxaga eta Fernando Uriarte "Olinpic" zena omendu baitzituen lasterketa egunean bertan. Arresek, Gurrutxagak eta "Olinpic"en alargunak orriogarri bana jaso zuten eta minutu bateko ixilunea egin zuen Wolde eta "Olinpic"en orimenez.

#### Balorazioak

Mintxeta Atletismo Taldea oso gustura geratu da aurtengo Mugerza krosarekin. Eguraldi hotzak ez zuen jendearengan uste zen eraginik izan eta aurreko urteetan baino ikusle gehiago hurbildu zen Mintxetara, 2.500 inguru. Gainera, munduko kros gutxitan ikusi daitekeen partaidetza batzea lortu dute eta Bekelerena Mugerza Krosaren irabazlearen zerrendan urrezko izkiz grabatzeko moduko izena da. Denborak esango du.



## Eguskizak eta Antxiak jokatuko dute Elite Euskadi 4 t erdiko Txapelketaren finala San Anton Egunean

Mtez de Irujo/Iriarte eta Mendizabal/Altuna bikoteak iritsi dira binakako finalera

**B**ihar, barixakua (urtarrilak 17), jokatuko dira San Anton Txapelketako eta Elite Euskadi lau t erdiko Txapelketaren finalak Ikastolako frontoian. Afizionatu mailako 8 pilotari onentsuenek jokatu dute Elite Euskadi Txapelketa eta bi bizkaitarrek lortu dute finalean sartzea. Ander Antxia, 22 urteko abadirioarra da finalistetako bat. Antxia Hak 22 eta 4 irabazi zion finalaurreko partidua Castellanos gipuzkoarrari. Castellanosek ez zuen zorterik izan jokaldiak amaitzerako orduan eta aurkaria markagailuan aurrera zihoala ikusirik etsi egin zuen. Bigarren finalaurrekoan 25 urteko Andoni Eguskiza zornotzarrak 22 eta 14 irabazi zion Eñaut Sorrarain alkizarrari. Partidu ireki eta orekatua jokatu zuten, baina Eguskizak kolpe gehiago eta sake hobea erakutsi zuen partidaren azken zatian eta mendean hartu zuen aurkaria.

### San Anton Txapelketa

Mtez. de Irujo eta Iriartek Mendizabal eta Altunak osatutako bikotearen aurka



Antxiak (ezkerrean) eta Eguskizak jokatuko dute Elite Euskadi Txapelketako finala.

jokatuko dute San Anton Txapelketako senior mailako finala. Irujo eta Iriartek Aurtenetxe eta Zabalarri irabazi zieten finalaurreko partidua eta Mendizabal eta Altunak, berriz, Castellanos eta Argoteri. Mtez. De Irujo aurrelariak oso irudi ona laga zuen Ikastolako frontoi hotzean eta bere ezker gantxo eta joko alaiak giroa zertxobait berotzea lortu zuten. Azkenik,

gazteen mailako finala Earralde eta Larrartek Garciandia eta Zubietaren aurka jokatu dute. Finalak arratsaldeko 17:00etatik aurrera jokatu dira eta ETBk ere emititzeko asmoa du. Ikusleen artean bi afari (Aterpe jatetxean) zozketatuko dira eta mendiko bizikleta bat, berriz, partiduak ikustera joaten diren gaztetxo guztien artean.

## Haritz Iriondo eta Eneko Ulazia jubeniil mailako Gipuzkoako esku pilota txapeldun



**F**ineko Ulazia mendarotarrak eta Haritz Iriondo elgoibartarrak osatutako bikoteak jubeniil mailako Gipuzkoako Esku Pilota Txapelketa irabazi zuten. Lagunak pilota Eskolako ordezkariak Bergarako Larrañagaren eta Altunaren aurka jokatu zuten finala Oriatiko pilotalekuan. Lehenengo bi tantuak bergararrek egin zituzten, baina hortik aurrera Iriondo eta Ulaziaren nagusitasuna nabarmendu zen eta azkenean Gipuzkoako Txapelketaren jabe egin ziren. Azken

emaitza 22 eta 6 izan zen. Ligaxkan 6 partidu jokatu eta guztiak irabazi zituzten eta finalaurreko partiduan 22 eta 7 irabazi zieten aňorgarrei. Beraz, partidurik galdu gabe jantzi dute txapela eta aurkariak oso tantu gutxi egin dizkiete. Bestalde, kadete mailan M.Portu eta I. Txurruka elgoibartarrak laugarren postuarekin konformatu beharrean izan ziren Irazusta eta Mujika bikotearen aurka 22 eta 9 galdu ostean hirugarren eta laugarren postua erabakitzen zuen partiduan.



## Morkaiko Mendizale Elkartearen urteko lehen irteera Urbasara izango da urtarrilaren 26an



Abenduaren 31n Aizkorri izan ziren hainbat elgoibartar Morkaikorekin.

**M**orkaiko Mendizale Elkartek urtarrilaren 26an, domekan, egingo du urteko lehen mendi irteera. Oraingoan Urbasa inguruan prestatu dute travesia, Lizarragako gainetik Bakedanoraino, hain zuzen ere. Bidea ez da motza, lasai joanda 5 ordukoa, baina oso laua da eta Morkaikokoen iritziz edonork egiteko modukoa. "Hasieran altuera piskat hartu ostean, jeitsiera edo igoera nabarmenik gabe zeharkatuko dugu mendilerroa, bidean pare bat puntatxo pasaz eta azkenik ezaguna den Urederra errearen jaiotzaren albotik Bakedanora jeitsiz. Irteera urtarrilaren 26an izango da eta autobusa Plaza Handitik aterako da goizeko 8:00etan. Jateko zerbait eramatea gomendatzen da, ura, beharrezko arropa eta materialarekin batera.

- Bazkideentzako prezioa 5 eurotako da eta bazkide ez direnentzat 10 eurokoa. Izena eman nahi izanez gero astelehen eta ostegunetan 19:00etatik 20:30etara duzue aukera elkarteak Errosario kalean duen lokalean.

### 2003ko irteeren egutegia

Bestalde, Morkaiko Mendizale Elkarteak jadanik lotuta du 2003. urteko mendi irteeren egutegia. Bazkideek irteerak proposatzeko aukera izan dute aurten eta aurkeztutako

irteera guztien artean bi aukeratu dituzte Morkaikokoen. Bata Paulo Arriolak Mugarra inguruan proposatutako travesia izan da eta bestea Imanol Lanallagak Garobel mendian proposatutakoa. Bi pertsona hauek irteera horiek dohanik izango dituzte sari moduan.

Urtarrilak 26: Urbasa inguruan travesia  
Lizarragako mendatetik - Bakedanora  
Otsailak 22-23: Eskiatzera irteera  
Bagneres de Luchon

Martxoak 22: Mugarra inguruan travesia  
Mañariatik Dimara + bazkaria  
Apirilak 13: Garobel mendian travesia  
Urduñako mendatetik Añesera.

►Maiatzak 18 Elgoibarko itzulia  
Ekainak 8 Finalista eguna  
Ekainak 28-29 Xiberua garatzen egitasmoa  
Xiberuan mendi irteera + espeleologia

† Uztailak 19-20 Pirineoetara irteera  
Aigties Tortes  
Irailak 20-21 Alto Campoora irteera  
Urriak 19 Kantabriar mendikatean irteera  
Cruz del Castillo + bazkaria  
Azaroak 16 Karakatera igoera

1 Azaroak 30 Bizkaiko kostaldean travesia  
Abenduak 12-21 Argazki lehiaketa  
Abenduak 22 Jaiotza morkaikoen  
Abenduak 31 Aizkorri irteera

## EMAITZAK

### Futbola

Pasajes 4 - Haundi 1 (Pref.)  
Elgoibar 3 - Aurrera Ondarroa 1 (1. erreg.)  
Elgoibar 6 - Sporting Herrera 0 (Jub.)  
Elgoibar 4 - Billabona 1 (Kad.)  
Lengokoak 1- Elgoibar 0 (11.)  
Pedrusko 1- Zumaia 1 (1. erreg.)

### Esku pilota

San Anton Txapelketa  
Aurtentxe/Zabala 11  
Mtez. Irujo/Iriarte 22 (Nagusiak)  
Elite 4 1/2ko Txapelketa  
Castellanos 4 - Antxia II 22  
Eguskiza 22 - Sorraín 14

### Areto Futbola

Kenci Elg. 3 - Candesa Camargo 9 (Nazional A)  
Lanbroa Elg. 4 - Nevada Venta Berri 3 (1. m.)  
Zarautz 3 - Lojantzi Elg. 6 (Jub.)

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

Zapatua, 18  
16:30 Haundi - Trintxerpe (Pref.)  
Domekia, 19  
10:30 Elgoibar - Bergara (Kad.)  
12:00 Elgoibar - Lazkao (Jub.)

### Esku pilota, Ikastolan

Barixakua, 17  
San Anton Txapelketa  
17:00 Larralde/Larrarte - Garciandia/Zubieta (Gazteak)  
17:00 Mtez. De Irujo/Iriarte - Mendizabal/Altuna (Nagusiak)  
Elite Euskadi Txapelketa  
18:00 Eguskiza - Anbda II

### Eskubaloia, Kiroldegian

Zapatua, 18  
17:30 Tecnifuelle Elg. - Axis UPV (Sen. mut.)  
18:45 Sanlo Elgoibar - San Adrian (Sen. nesk.)

### Areto futbola, Kiroldegian

Zapatua, 18  
12:30 Lojantzi Elg. - Etxadi (Jub.)  
16:00 Kenci Elg. - Gala-Gar (Nazional A)

## Elgoibar Xake Taldea igoera fasea jokatzen ari da

Elgoibar Xake Taldeak laugarren postuan amaitu du Liga Txapelketa. Eraitza honi esker preferente mailara igotzeko kanporaketak jokatuko ditu. Kanporaketetako lehen partidua pasa den zapatuan jokatu zuten Astigarragako Mundarro taldearen aurka eta bina berdindu zuten. **Hurrengo partida Elgoibarren jokatuko dute** Idiazabalgo xake taldearen aurka zapatu honetan, urtarrilaren 18an.

## Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Bergarako enpresak lau enkofratzaile behar ditu. Erref. 94251/2

Urola kostaldeko aldi baterako enpresak montadorea behar du. Erref. 94142/6

Bergarako aldi baterako enpresak 3 auto inspektore behar ditu. Erref. 94717/3

Eibarko enpresak promotorea behar du. Erref. 94649/3

Durungaldeko enpresak peoi espezialista behar du. Erref. 93350/6

Bergarako aldi baterako enpresak mantenimenterako mekanikoa behar du. Erref. 94715/2

Donostialdeko enpresak obrarako nagusia behar du.

Erref. 94392/6

Durungaldeko enpresak sukaldari laguntzaile behar du. Erref. 93833/2

Hautagai moduan sartzeko eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Lon\_ai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Raman) 943 74 41 32 telefonora.

## Lana

### ESKAERA

Emakumea etxeko lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest.

12 943 74 44 72/639 42 34 93

• Kamarero lanak egingo nituzke. Euskara badakit eta espezialista daukat.

17 943 74 17 87/699 18 32 99

• Mutila etxeko konponketak egingo prest (arotzeria, elektrizitatea, montajea...)

666 24 16 62/943 03 36 41 (Jokin)

+ Mutilak buzoneo lanak egingo lituzke. 17 943 74 44 63 (eguerdian eta 21:00etatik aurrera)

• Mutilak garbiketa lanak egingo lituzke. s 943 74 44 63 (eguerdian eta 21:00etatik aurrera)

• Emakumea etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko prest. ss. 687 04 32 05 (20:00-22:00)

• Emakumea etxeko lanak egin edo gaixoak zaintzeko prest. tr 943 03 03 21

Neska umeak zaintzeko prest. Arratsalde. s 659 68 96 32

### ESKAINTZA

\* Gazte jendea behar da harre-  
ra zerbitzuetan lan egiteko. Eus-  
karraz jakitea eskatzen da.  
Curriculum-ak 32 Posta Kutxatila-  
lara bidali

• Langileak behar da banaketa  
lanak egin eta almazenerako. Gi-  
da baimena edukitzea ezinbesteko-  
koa. Tr 608 39 43 05

+ Ikastolako Hautzaindegian  
Goi Mailako edo Teknikari Espe-  
zialista behar da, euskara ondo  
dakiena. Interesatuak bidali  
C.V.a abenduaren 27a baino lehen  
Ikastolara. Posta Kutxa, 53,  
20.870 Elgoibar

Ikastolako Jantokian haurrak  
zaintzeko pertsona behar da,  
euskara ondo dakiena eta pueri-  
kultura laguntzaile maila duena.  
Interesatuak bidali C.V.a aben-  
duaren 27a baino lehen Ikasto-  
lara. Posta Kutxa, 53, 20.870  
Elgoibar

\*Asteburuetarako kamareroa  
eta basoak biltzeko norbait be-  
har da Oraiko tabernarako.  
cr 943 74 42 65/943 74 01 93

• Taberna garbitzeko pertsona  
behar da. Tr 943 74 26 21

## Etxebizitzak

Etxea salgai, bizitzera sartzeko mo-  
duan. Igogailua, ganbara. Kanpoaldera  
begira.

678 80 35 35/639 180 184

Bigarren eskuko etxea erosiko nuke  
Elgoibar, Mendaro edo Altzolan.  
tr 636 42 71 77

Pisua salgai Santa Claran. 2 logela,  
egongela, igogailua, eguzkitsua.  
s. 659 14 12 32

+ Txiletar neska ingeniariak gela bat  
hartuko luke alokairuan.  
tr 943 74 44 00 (Carola)

+ Etxea salgai. Bizitzera sartzeko mo-  
duan. Igogailua, ganbara. Kanpoaldera  
begira.  
s 678 80 35 35/639 180 184

+ Pertsona bat behar da Gasteizen  
etxea osatzeko. Norbanako logelak eta  
berogailu zentrala. 'zr 637 99 01 59

Pisua hartuko nuke alokairuan.  
tr 943 60 45 98/630 61 79 82

Logela bat daukat alokatzeko.  
rt 699 91 31 69

## Garajeak

\*Garajea alokatzen da Pista Beltze-  
an. 0 943 74 29 38

• Lokala edo garajea behar dugu, ko-  
adriila batentzako. Eguraldi txarra egi-  
ten duenerako, lanak egiteko...

tl. 686 33 16 85

\* Garaje marraduna salgai. Pedro  
Muguruza etorbidea, 11.  
tr 943 74 28 24

## Lokalak

+ Gazte koadriila batek lokala hartu-  
ko luke eskizateko tresnak eta bizikle-  
tak gordetzeko.

1T 652 73 53 19 (gauetz deitu)

## Partikularrak

• Matematika klaseak gaztelezer eman-  
go dizkidan norbait behar dut. ESOko  
3. maila. 0 649 18 88 25

## Bestelakoak

♦ Joan zen igande gauean emamumez-  
koen poltsa marroia galdu nuen San  
Frantzisko kalean. Aurkitzen duena sari-  
tua izango da. tr 943 74 16 88

+ Audifono bat galdu da. Aurkitzen due-  
nak deitu mesedez. v 943 74 11 06

• Harri urdinak dituen pultsera galdu  
dut. t2 943 74 42 66

Betaurrekoak galdu ditut. Norbaitek  
aurkitu baditu, deitu mesedez.

tl 943 74 28 95/943 74 30 22

Abenduaren 23an kartera galdu nuen,  
eta hurrengo ostiralean norbaitek Udalt-  
zaingora eramane zuen. Kartera entre-  
gatu zuena nor zen jakitzea gustatuko  
eskerrak emateko.

tl 943 74 25 30

+ Urrezko kate bat galdu dut. Libra es-  
terlina bat dauka zintzilik.  
t/ 943 74 15 14 (Isabel Aizpitarte)

+ Sofa eta salarako mahaia hartuko ge-  
nituzke. Gu joango gara bila.  
tl 629 88 94 77

o Joan zen ostiral gauean, hilak 13, au-  
to bati ispilu erretrobisorea apurtu nion  
istripuz, Urasandin. Autoaren jabeak  
deitu dezala, mesedez.  
tl 943 74 28 99

+ Altzariak hartuko genituzke lokal bat  
hornitzeko. a 616 62 18 71

Eguzkitako betaurrekoak aurkitu ge-  
nien ambulategi parean. Galdu dituen  
joan dadila Udaltzaingora.

## Salerosketak

+ Ternua Gore-tex txamarra salgai.  
150 euro, negoziabileak. la erabili ga-  
bea (4 aldiz) s 652 77 88 36

+ Urkotronik markako goxoki makina  
salgai. Urte eta erdi. Temperatura biko-  
tza. Merkea. 655 71 29 59

• Bikientzako kotxe-kapota salgai.  
1r: 943 74 44 08

♦ Lada Niva autoa salgai.  
647 55 85 17

Opel Corsa luzea salgai. SS-X.  
Merke. s 680 11 29 38

• R-11 diesel salgai. BI-AN.  
Te 943 76 07 26 (8-12/15-19) edo  
606 85 07 85

\* Diseinurako mahaia daukat. Norbai-  
tek behar badu deitu.  
943 74 23 07

+ Kotxea salgai. Merke.  
Tr 616 50 51 11 (15:00etatik aurrera)

+ 5 besotako yantak salgai. Audi A3  
originalak, aluminiozkoak, Neumatics  
Michelin Pilot. 205-16-55  
636 68 67 37/ 943 74 39 59

• Ford Sierra diesel, SS-AG salgai.  
Merke, extrekin. l? 606 85 07 85 edo  
943 76 07 26 (8-12/15-19)

Seat Toledo salgai. Merke, egoera  
onean. 71- 656 78 98 82

Elgoibarko Gazte Informazio Gunea  
 Kultur Etzean. Bigarren solairuan.  
 TeL 943 741 461

Orduregia:  
 Osteguna-ostirala: 17:00-20:00  
 Larunbata: 10:00-14:00

### OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak  
 ekartzeko azken eguna  
 asteazkena eguerdiko  
 13:30a da.

## Agurrak



• Zorionak Miguel, urtarrila-  
 ren 19an 6 urte beteko dituzulako. Besarkada handi bat  
 familiakoen eta batez ere,  
 Sandraren partez.



\*Zorionak Asier Mancillari,  
 hilaren lean 2 urte bete zi-  
 tuelako. Familiakoen partez.



• Zorionak Asier! Ondo pa-  
 sa lagunekin eta familiakoe-  
 kin zure 8. urtebetetze egu-  
 nean. Mikel, Fernan eta Ma-  
 rijoren partez.



• Zorionak Belen Cordon, hi-  
 laren 17an 11 urte beteko  
 dituzulako. Zure anaia eta  
 gurasoen partez.



• San Sebastian egunean  
 jaio zinen tanborradarekin  
 batera. Hasieran beti nega-  
 rrez, orain beti alai. Jurgi da  
 zure izena, Txaber zure  
 anaia. Zure lehenengo urte-  
 betetzean zorionak maitia.  
 Gurasoak.



• Zorionak Maialen, hilaren  
 14an 5 urte bete zenituelako.  
 Muxu handi bat denon par-  
 tez, eta bereziki, Aroaren  
 partez.

### BBIAK

#### Gipuzkoako kirolariak

Kirolgi Fundazioak parte-hartze indibidualako kirol-  
 modalitateetako Gipuzkoako kirolarientzako beka  
 eskaini ditu. 18 urte izatea beharrezkoa da. Epea:  
 urtarrilak 31

#### Landa-garapeneko agenteak

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak landa-  
 garapeneko agentecen prestakuntzarako 2003ko beken  
 eskaintza egin du. Unibertsitateko ingeniarietako titulua  
 edo garapeneko agente gisa gutxienez bi urteko lan  
 esperientzia izatea eskatzen da. Epea: apirilak 1.

### JARDUNALDIAK

#### Cirque du Soleil

Bilboko Udalak antolatuta, Cirque du Soleilek  
 Saltimbanco ikuskizuna aurkeztuko du otsailaren 26tik  
 martxoaren 23ra bitartean. Sarrerak salgai daude.

#### Erakusketa Aquariumean

Mikel Redondok bere txalupatik donostiarrei egindako  
 zuri-beltzeko 54 argazkiren erakusketa, "Nere  
 Txalupatik" izenekoa, Aquariumeko aldi baterako  
 erakusketen aretoan ikusgai. Epea: apirilak 27

#### Mendiari buruzko jardunaldiak

Girizak Oiartzungo XVII. Mendiari buruzko jardunaldiak  
 antolatu ditu. Urtarrilaren 20tik 25era, arratsaldeko  
 20:00etan Oiartzungo Udaletxean.

### LEHIAKETAK

#### Koldo Mitxelena Literatura saria

Komikia, poesia, ipuingintza, bertsoarritza edo gutun-  
 idazketa. Lanak originalak izango dira, euskaraz idatziak  
 eta lehenago argitaratu gabeak. Gehienez 20 orrialdeko  
 luzera. Epea: martxoak 11

### LANA

#### Administrari laguntzaileak

Errioxako Gobernuak bi administrari laguntzaile lanpostu  
 betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du. Eskola  
 Graduatu edo lehen mailako Lanbide Heziketako titulua  
 eskatzen da. Epea: urtarrilak 20.

#### Basoko langilea

Andoaingo Udalean aldi baterako basoko langile-  
 lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea:  
 urtarrilak 22

#### Gidariak

Errioxako Gobernuan, Administrazio Publikoetako  
 Sailean lan egiteko 3 gidari lanpostu betetzeko oposizio-  
 lehiaketa. Eskola ziurtagiria, lehen mailako Lanbide  
 Heziketako titulua edo baliokidea eta B, C, D eta E  
 gidabaimenak izatea eskatzen da. Epea: urtarrilak 20

#### Goi mailako tituluak

Zientzia eta Teknologia Ministerioak CSICko goi-  
 mailako tituludun espezializatuen eskalako 6 lanpostu  
 betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du. Lizentziatu,  
 ingeniari edo arkitekto titulua edo baliokidea eskatzen da.  
 Epea: urtarrilak 20

# SAN ANTON J AIAK

URTARRILAK 17, OSTIRALA  
SAN ANTON EGUNA

011 Meza Nagusia San Bartolome Parrokiako Abesbatzak abestuta.

12:30 Ertzantzaren Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian.

San Anton Pilota Txapelketa-ko azken partidua Ikastolan.

22:15 "El Club de la comedia", Herriko Antzokian.

URTARRILAK 18, LARUNBATA

12,00 XXII. Zigilu erakusketaren inaugurazioa Taupada Antzerki Taldearen 25. Urteurrenari eskainia.

11:00-14:00 eta 16:30-20:00 Umeentzako Parkea Foruen Plazan.

18:00 Erraldoi eta Buruhandien kalejira Herriko Dultzaineroekin.

19:90tako Mezaren ondoren, Eibarko Sostoa Abesbatza San Bartolome Parrokian.

## 18 ZAPATUA

20:00 SOSTOA EIBARKO  
ABESBATZAREN KONTZERTUA  
San Bartolome parrokian

## 21 MARTITZENA

13.00 MISKI ELKARTASUN  
TALDEAREN ZOZKETA  
Saria: Gemma Monrealen koadroa  
Kultur Etxeko erakusketa gelan

## 22 EGUAZTENA

11:00 SAN BIZENTE EGUNEKO  
MEZA

San Rokeko ermitan  
Ondoren, salda eta txorizoa


20:00 HITZALDIA  
Izenburua: "Zoriontasunaren pedagogia"  
Hizlaria: Enrike Larrañaga  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan



## 24 BARIXAKUA

19:00 IKASTOLAKO JAIALDIA  
Ikastolako Frontoian

ZINE EMANALDIA  
EMAKUMEENTZAT  
"El diario de Bridget Jones"  
Kultur Etxean  
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea



## TOLETXE TABERNA ITXI EGIN DUGU



Hori dela-eta,  
**ESKERRAK EMAN** nahi dizkizuegu  
TOLETXEko **bezero** izan zareten guztioi.  
W Gure eskerrik zintzoenak, baita ere,  
Toletxeko lanetan eta kultur jardueretan  
parte hartu eta lagundu diguzuen  
herriar, talde eta elkarte guztioi.

*Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte*

JOSE

(Txema)

**Mota guztietako  
pintura eta  
enpapelatuak.  
Zoluak, moketak,  
sintasola,  
kortxoa, etab.  
jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk  
Tel: 943 74 12 55  
Mobila: 629 44 23 14



## IKASTAROAK

Altzariak berritzeko ikastaroa

Eskuz arte tailerrak altzariak berritzeko ikastaroa antolatu du. Astelehen eta ostegunetan izango dira klaseak 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara Pedro Muguruza ikastetxean. Izena emateko: 943 741449 telefonora deitu (Arantza, 14:00etatik 16:00etara).

Masa,je ikastaroa

Surya belardendak antolatuta masaje ikastaroa hasiko da otsailaren 2an, domekan. Bederatzi larunbateko iraupena izango du ikastaroak eta masaia teknika ezberdinak irakatsiko dira, besteak beste. Klaseen ordutegia 10:00etatik 12:30etara izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izena emateko: 943 74 25 34 edo 626 79 50 24 telefonoetara deitu.

Erreflexologia ikastaroa

Aubixa baserriak erreflexologia ikastaroa berri bat antolatu du aurrekoak izan zuen arrakasta ikusirik. Manuel Mari Albarado izango da irakaslea oraingoan ere eta klaseak urtarrilaren 18an, zapatuan, hasiko dira. Gutxi gorabehera 5 asteko iraupena izango du kurtsoak. Besteak beste, sendatzeko balio duten prestakuntzak irakatsiko zaizkie bertara hurbiltzen direnei eta bach-en landareen aukera terapeutikoak ere azalduko dira. Aubixako telefonoa: 943 74 19 09.

## IRTEERAK

Luz Ardidenera eskiatzera

Mendaroko In Leike elkarteak Mendarotik Luz Ardidenera eskiatzera joateko irteera antolatu du otsailaren 7tik 9ra bitartean. Irteeraren prezioa 90 eurokoa da, langabetu eta ikasleentzat eta 105 eurokoa beste guztientzat. Prezio honetan sartzen dira: 2 gau, 2 gosari, afari bat, autobus bidaia, 2 forfait eta segurua. Izen-ematea urtarrilaren 24a baino lehen egin behar da In Leikek Kutxan duen kontuan.

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"XXX"

17, barixakua: 19:30

18, zapatua: 19:30-22:15

19, domekia: 19:30-22:15

20, astelehena: 22:15

"El planeta del tesoro"

19, domekia: 16:30

EIBAR, Unzaga

gran o a ega

17, barixakua: 19:30-22:15

18, zapatua: 17:00-19:30-22:30

19, domekia: 17:00-19:30-22:30

20, astelehena: 19:30-22:15

21, martitzena: 19:30-22:15

22, eguaztena: 19:30-22:15

"El señor de los anillos: Las 2 torres"

17, barixakua: 19:30-22:15

18, zapatua: 17:00-19:30-22:15

19, domekia: 17:00-19:30-22:15

20, astelehena: 19:30-22:15

21, martitzena: 19:30

22, eguaztena: 19:30

BARRE, ez ez du gerta litekeen emanakien ahalaketen erantzukizunak -!

ZINEA



UXXXUU

Zuzendaria: Rob Cohen.

Antzezleak: Vin Diesel, Samuel L. Jackson, Asia Argento.

Vin Diesel gihartsuak Xander Cage ixilpeko agentearen papera antzetzten du triller mugitu honetan. Tatuaiak, giharrak eta arropa modernoak dira milurteko berriko espioien itxuraren ezaugarriak. Martiniak eta Armaniak atzean geratu ziren. Gobernuak beste batzuk huts egin duten misio arriskutsu bat burutzeko deituko du Xander. Errusiar mafian ixilpean sartu eta hauen asmo ankerrak zein diren asmatu beharko du bere gogor itxuraz baliatuz.



A


ste honetako erretratu zaharra, Ansolatar Nemesek laga digu. Datorren larunhatean, aurtengo Zigilu Erakusketa inauguratuko denez, egokia iruditu zaigu argazki hau argitaratzea. Erretratua 1982. Urteko erakusketaren inaugurazioan aterata dago. Egun hartan, Leizaola lehendakari ohia izan zen ekitaldian. Argazkian ikusten den moduan, Nemesek zigiluei buruzko esplikazioak eskaini zizkion lehendakariari, eta honek garai hartako zigilu bat firmatu zion.

Honekin batera, garai hartan gutunak hegazkinez bidaltzeko erabiltzen zen zigilua ikus dezakezue, bere ikurriña eta guzti. Zigilu hau, Bilbo askatu aurretik ere erabiltzen zen. Argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara: Leizaola lehendakaria eta Ansolatar Mmese.



## ESKERTZA

*2003ko urtarrilaren 8an, 76 urte zituela hil zen TXOMIN GABILONDO UNZUETAren sendiak, bihotzez, ESKERTZEN ditu jasotako dolundnak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# BASKO RENT

KE

**MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA GARBI eta PREST!**



**GARBIKETA AUTOMATIKO  
PUBLIKOA**



**GARBIKETA  
2,50 €**

**GARBIKETA LEHORKETA  
ARGIZARIA EMATEA  
3,50 C**



**ESKUZ EGINIKO  
GARBIKETA**

**GARBIKETA  
BEREZIA  
4,50 C**



**HORREZ GAIN:**

OlioarEn edo filtroEn aldakEta  
PnEumatikoEn aztErkEta Eta aidakEta  
BalaztEn Eta EsekidurarEn aztErkEta  
MantEnimendu orokorra

**SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE**

**7 eta 8 pabilioiak - Elgoibar**

**12 902 103 287**



iNiONDO  
biR,OLZIK

San Frantzisko, 37-54 Tel. 943 74 09 56



gofi

Giza Eskubideen plaza, 1 Tel. 943 74 46 53



ASTIGARRAGA  
KiROLAK

Errosario, 16-18 Tel. 943 74 32 68

Sara

Errosario, 12 Tel. 943 74 35 55



ABARKA

Errosario, 31 Tel. 943 74 29 00

Jantzi  
Maidagan  
Dendu

San Frantzisko, 20 Tel. 943 74 40 98

Lizzy

Errosario, 25 Tel. 943 74 23 02

Ferpi  
Modak

San Bartolome, 38 Tel. 943 74 08 15

Luvik

San Bartolome, 28 Tel. 943 74 31 27

GARATE

San Bartolome, 13 Tel. 943 74 11 29

BEHER APENAK